

EZFk, "Ekintzailetasuna, Berrikuntza eta Elkarkidetza" ikastaroa eskeintzen du Monterrey-n, bideokonferentziaz baliatuz

2009/05/13

Maiatzaren 5etik eta abenduaren 16rarte, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultatea, "Ekintzailetasuna, Berrikuntza eta Elkarkidetzatza" ikastaroa eskeintzen dago Monterrey-n bideokonferentziaz baliatuz.

Programa honen helburua, partaideek, elkarkidetza oinarritzat hartuz, kultura ekintzailea eta berrikuntza garatzen duten prozesuen lidergoa eramateko gaitasunak eskuratzea da.

Horretarako, 6 modulutan bantzen den programa diseinatu da. Jasotzen dituen gaiak ondokoak dira: elkarkidetza, berrikuntza beharrak, analisi estrategikoa, merkatu ikerketa, ideien bideragarritasun teknikoa eta marketing plana.

Ikastaro honetarako erabiltzen ari den metodologia oso interaktiboa da eta klase teorikoetaz gain, besteak-beste, kasuen irakurketa eta eztabaida, taldelana eta abar aplikatzen ari dira.

Guzti hau bideokonferentziaz gauzatu ahal izateko, programa hau, web 2.0k eskeintzen dituen erraminta desbedinetan oinarritzen ari da (google docs, wiki, moodle, e.a.)

Ikastaroa, MONTERREYko TECeko Gizarte Garapenerako Errektoreordetzatik zuzenduta dago. Errektoreordetza hau, TECeko Gizarte Garapen Iraunkorreko Institutuan (IDESS) kokatuta dago. Institutu honen misioa, TECek bere egoitzak dituen komunitateetan eta garapen iraunkorra oinarritzat duten ereduak kontutan izanik, enpresa ideia berriak bultzatzea da.

Ikastaro honetan, IDESSko 9 campus diferenteetako zuzendariak daude parte hartzen.

